

# KANALAK

## PATINETE ETA BIZIKLETEN ALOKAIKUA




Ez dugu bezeroekin harreman zuzenik izango, bezeroek patinete edo bizikleta elektrikoak erabiltzen dituztelako gure presentziaren beharrik gabe. Bezeroek patinete edo bizikleta elektrikoak erabiliko dituzte, eta helburu nagusia bezeroa joan nahi duen lekura iristea izango da. Argi dago gure presentzia ez dela guztiz beharrezkoa,



baina bezero bati gure patinete edo bizikleta elektrikoak erabiliz istripuren bat gertatzen bazaio edo patinetea matxuratu egiten bada, uste dut guztiz beharrezkoa izango dela gure presentzia arazoa berehala konpontzeko.


Patinete edo bizikleta elektrikoen aparkalekuak bezeroengandik hurbilen dauden tokiak izango dira, eta horregatik aukeratu ditugu hiriak edo herriak bezeroen aparkaleku gisa. Oraingoz aparkalekuak hiru hiritan egongo dira, Bilbao, Donosti eta Gasteizen. Bilbon hiru aparkaleku ipiniko ditugu Kale Nagusian zehar.



Gutxi gorabehera Kale Nagusia hiru zatitan banatuko dugu, eta hiru zati horien erdian aparkalekuak jarriko ditugu. Aparkalekuak erabat itsatsita egongo dira hiru kokapen horietan dagoen eraikinaren horman. Disenoari ez diogu garrantzi handirik emango, baina horizontalki hormaren kontra egongo dira


jendea lasai pasa dadin eta ez dute bost metro baino gehiago neurtuko.

Donostin lau aparkaleku ipiniko ditugu. Donostiaren alde zaharrea kokatuko dira eta bakoitza alde zaharraren punta batean egongo da lauki bat sortuz. Aparkalekuak etxe zaharren hormetan horizontalki kokatuta ipinita egongo dira.



Azkenik Gasteizko erdi erdian aparkalekuak ipiniko ditugu. Jauregieen inguruan kokatuko ditugu. Ez dugu zehaztu ze forma izango duten lau aparkaleku batera baina bai zehaztu dugu zelan jaongo diren kokatuta.

Horizontalki horman ipiniko dira berriro ere jendeei ez traba egiteko.



Salmenta bezeroekin gertuko harremanik izan gabe ere gauzatuko da. Gure enpresak sortzen dituen salmentak digitalki egingo dira.

Bezeroak nahi duen aparatu digitaletik egin ahal izango du salmenta.

Garrantzitsua da enpresa horrela antolatzea; izan ere, bezeroak nahi duen lekuan alokatu ahal izango du, nahi duen alokairua egiteko tokiren batera mugitu behar izan gabe.

Banaketan, herri edo hiri batean patinete elektrikoen aparkalekuak jarriko ditugu. Herriak eta hiriak dituen kokalekuak sakonki aztertuko ditugu, aparkalekua jende asko igaroko den leku egoki batean



jarri ahal izateko. Adibidez, aparkalekuak plazetan, saltokietan, parkeetan... jar ditzakegu.

Gure enpresak bezeroentzako sarbide zuzena izango du, inolako eragozpenik gabe, bezeroak gure produktua eskura eta erabil dezan. Etorkizunean aldatzea erabakitzen badugu, enpresaren kanala aldatuko dugu, eta zuzeneko sarbidea duen kanal bat izatetik bezeroak produktua erabili aurretik saltokitik pasatzen den produktu edo kanal bat izatera igaroko da.

